



Emakumearen Eguna dela eta, hamaika ekitaldi bi eskualdeetan

EGITARAUA ▶ Hilaren 8aren harira hitzaldiak, bazkari-afariak, elkarretaratzeak... antolatu dituzte

TAILERRAK ▶ Ainhoa Iturbek eta Eduardo Troncosok zuzenduko dituzte Anoetan eta Zizurkilen ▶ 4,5

LEITZA ▶

Plazaola Partzuergo Turistikoa Navarturren izan da

18.000 lagun inguru hurbildu da informazio eske ▶ 7



Abiarazi dituzte Aizkorregi harrobian ingurumena berreskuratzeko lanak

GAZTELU ▶ Amenabar Eraikuntzak enpresa arduratuko da Aizkorregi harrobiaren zuloa lurrez bete eta paisaia berreskuratzeko lanetaz, Gazteluko Udalak lehiaketa bidez aukeratu ostean. Gisa honetara eztabaida guztiei amaiera ematen diete. A. IMAZ ▶ 6

AMEZKETA ▶

Zazpi-Itturri
aurrera
Berria
Txapelketan

Hainbat final irabazi
ditu pilota eskolak ▶ 3

TOLOSA ▶

Kultur
ikastaroen
eskaintza
oparoa

Gazteria sailak
antolatu ditu ▶ 4

Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Asteazkenetik larunbatera gauz zabalik, larunbat eguerdian ere bai
www.iparragirre.com

NATURA ▶

Udaberria heltzear denez, etzi ospatuko da Zuhaitz Eguna

Laskorain ikastolan elkartuko dira 5. eta 6. mailako ikasleak; landaketaz gain beste hainbat jarduera egingo dituzte

ERREDAKZIOA

Udaberria gerturaten ari den honetan, aurten ere Zuloaga Txiki ingurumen eskolak Udalarekin batera, omenaldi txiki bat egin nahi die zuhaitzei. Helburu horrekin, etzi, larunbata, Zuhaitz Eguna ospatuko dute.

Usabal kiroldegiaaren parean dagoen lursaila aukeratu dute landaketa egiteko eta urtero egiten den bezala, Tolosako 5. eta 6. mailako ikasleen artean zabaldu dute deialdia. Gaztetxoek landaketarekin batera beste hainbat jarduera burutzeko aukera izango dute: paper birziklatua, kuku-miku jolasa, puzleak, erromero alko-hola ...



Urtero, data hauetan ospatzen da Zuhaitz eguna. J. ASTIBIA

KULTURA ▶

Udaberri dantza taldearen 50 urteak argazkitan

Udaberri dantzari taldeak bere 50. urteurrena dela eta, garai honi guztiari berririketa egin nahi dio, eta horretarako taldean bilduriko argazki esanguratsuenak bildu ditu. Hauek ikusgai dira Kultur Etxean jarri duten erakusketan. Hau irekita izango da gaurtik igandea bitartean: 17:30etik 20:30era. Larunbatean 10:00etatik 13:00era. Sarrera doakoa izango da.

GIZARTEA ▶

Merkatu Txikirako material bilketa

Amarotz Auzo Etxeak Nikaraguarekiko elkartasuna adierazteko Merkatu txikia antolatatu du. Horregatik, liburu, jostailu, disko, arropa eta abar biltzen ari dira. Horrelako ekarpen bat egin nahi duten herritarrek bihar arte egin dezakete. hau, 18:00etatik 20:00etara bitartean egin ahal izango dute, Auzo Elkarreko lokalean (jatetxearen gainean).

GIZARTEA ▶

Ferialekua garbitzen joateko garaia da

Inauterietako karrozak eta konpartsak prestatzeko Ferialekuko eraikin gunea erabili dutenek aste honetan bukatu beharko dute plataformen desmontaketarekin. Martxoaren 5ean, goizean, hasiko da Ferialekuaren antolaketa eta garbiketa, ordu-rako plataformak desmontatuta eta datorren urterako gordetzeko direnak identifikatuta egon beharko dute. Identifikatzeke dagoena bota egingo dute.

KULTURA ▶

Txalaparta eta jende aurrean hitz egiteko teknikak lantzeko ikastaroak antolatu dituzte, besteak beste

Martxoan, apirila eta maiatza bitartean, astean behin antolatu ditu eskolak Gazteria sailak

ERREDAKZIOA

Gazteria sailak ikastaro berriak antolatu ditu martxoan, apirila eta maiatza bitarteko. Txalaparta, gizarte trebetasunak, batxata, salsa eta merengea, jende aurrean hitz egiteko teknika eta gorputz espresioarena. Ikastaro guztien prezioa 10 eurokoa izango da Gor-

putz espresio eta gizarte trebetasunena izan ezik. Hauek biak dohainik izango dira. Informazio gehiago nahi izanez gero Kultur Etxera dei dezakete interesatuek, hau da, 943 670383 zenbakira.

Jende aurrean hitz egiteko teknikak lantzen dituen ikastaroa izan ezik, gainontzekoak euskaraz izango dira. Adinari

dagokionean, berriz, adin talde ezberdinentzako zuzenduta daude ikastaroak. Bestalde saio ia denak astez badira ere, gorputz espresioa larunbategian izango da. Gainera, ikastaro guztiak arratsaldean izango dira. Dantza eta txalapartako ikastaroak Kultur Etxean emango dituzte, baina gainontzekoak Gazte Topagunean.

Ikastaro denetan plaza kopurua mugatua izango da. Hezikide eskolak eskainitako Gizarte trebetasunak izeneko eskolak martxoan izango dira. Hiru saio izango dira eta 18 urtetik gorakoei zuzendua dago. Gainontzekoek berriz, hiru hilabetetako iraupena izango dute, eta astean behin izango dira.

hilberria ▶

Xabier Zubillaga Eraso

Aio atte, zaindu

Meza, gaur arratsaldeko 17:30ean
Aresoko elizan izango da.

ARESON, 2007ko martxoaren 1a

HILBERRIK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

AMEZKETA ▶ PILOTA

Berria Txapelketan aurrera egin dute

Joan den asteburuan hainbat final irabazi ditu Zazpi-Ilturri pilota eskolak



Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Ilturrikoen arteko partida bat. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Joan den aste bukaera «ederra» izan zen, «otsaila ondo borbiltzeko», Zazpi-Ilturri pilota eskolako arduradunaren esanetan. Berria Txapelketan 3. kanporaketara igaro dira eta horrez gain, hainbat final irabazi dituzte: ostiralean Laudiokoa, mementuko «gure pilotaririk onenek, erraz irabazi zuten». Gonzalez-Garmendia 22, Olaetxea-Galarraga 5 izan zen emaitza.

Larunbatean, berriz, Astigarragan, Gipuzkoako infantilen finalak jokatu zituzten eta Amezketaoko pilota eskolako

Erik Jaka eta Joseba Gallurralde «erraz irabazi zieten astigarrakoei, 18-7».

Larunbatean ere, Euskadiko ligago joaneko finalerdiak jokatu zituzten: 8 talderekin parte hartu dute eta 5 sartu dira finalerdietan. Kadeteetan, Olaetxea eta Arzelusek Arbizon jolastu zuten Belatekoen aurka, 22-10 irabaziz. Ropon eta Leunda gazteek Amezketa jolastu zuten Txarutakoen kontra, 22-12 irabaziz.

Nagusietan, Elurbek eta Belokik, Iurretan jolastu zuten 22-20 galduz. «Pena izan zen, 20-16 irabazten joan baitziren».

Nagusia Ohorezko Mailan,

Baezek eta Garmendiak, egungo txapelkunak diren eta Urretxutik jolasten duten Lasa-Bengoetxeari 22-14 irabazi zieten Urretxuko pilotalekuan.

Nagusien Ohorezko Mailan eskuz banaka, Igor Baezek ezin izan zuen Amezketa frontoian Gernikako Oarrartaren kontra irabazi, 22-7ko emaitza erraz baten ondoan.

Igandean Ortuellan Joseba Baezek Asier Bengoetxearekin batera Memorial Elortegiren txapela irabazi zieten Olaetxea-Lopez, 22-17 emaitzarekin. «Zorte txarra Lizartzako Olaetxearena, bi egunetan bi final galdau baitzuten».

Berria Txapelketan 52

Igandean Altzan Berria Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zuten Mallabiaren kontra eta «gauzak ondo atera zitzaizkigula esan behar»: 52 tanto lortu zituzten. Kadeteetan Sukia eta Arzelusek lan handia egin behar izan zuten 22-14 irabazteko.

Gazteetan Iraola-Leundak uste baino errazago irabazi zuten 22-12, eta nagusien mailan Joseba Baezek Ortuellako finala zuenez, Koxme Elurbe eta Unai Garmendia atera ziren kaiolara. Esan behar, «4 tanto egitea nahiko genuela eta 2-0 irabazten gindoazela Elurbek zaintratu gogor bat izan zuen» eta jarraitu bazuen ere, Garmendiak ia bakarrik jokatu 22-8 galdu zuten.

Beraz, Berria Txapelketan 6 lehenengoetan sartzea lortu dute.

IKAZTEGIETA ▶

Olaberriak marka berria ezarri du

Munduko azken probetan izan da Leire Olaberria Manchesterren (Ingalaterra). Ikaztegiatarra gaixorik bazegoen ere, Euskadiko marka berria jarri zuen 3 kilometroko jazarpeneko proban (3'47"795). Finalean izango da, 16. bukatu duelako. Gaur, Euskadiko selekzioarekin Mallorkara (Herrialde Katalanak) joango da Espainiako Txapelketa jokatzera.

AMEZKETA ▶

Talai-dantzan bildutakoarekin zer egin, bileran

Amezketa Inauterietan talai-dantzariak ateratzen dira urtero; honetan, besteen artean, eskean ibiltzen dira baserriz baserri, eta iaz eta aurten ateratako diruarekin zer egin erabakitzeko, bilera bat egingo dute bihar, 20:00etan. Talai-dantzariak gazte taldeko lokalean (frontoi berrian) elkartuko dira.



Talai-dantzariak. N. URBIZU

ANOETA ▶

Alkartasuna biltokioen batzarra egingo dute bihar

Besteen artean, tabernako boluntarioez eta junta berriaz hitz egingo dute

ERREDAKZIOA

Anoetako Alkartasuna jubilatuen biltokiak asanblea orokorra egingo du bihar, 18:00etan. Jorratuko dituzten gaien artean, tabernako boluntarioak eta junta berriaren informazioa izango dira.

Junta berrian bi lagunek ez dute parte hartuko aurten: Inazio Amonarrizek eta Laureano Diaz Arribak. Hauen ordez, Xanti Tejeria eta Jose Mari Esnaola izango dira. Junta berrian Manuel Odriozola lehendakaria, Marisol Zinkunegi lehendakariordea, Maialen Mariat idazkaria, Angeles Eguren diruzaina, eta Jose Luis Garmendia, Jose Odriozola, Xanti Tejeria eta Jose Mari Esnaola batzorkideak izango dira.

Bigarrenik, 2006. urteko memoria aurkeztuko dute eta honen batera balantze ekonomikoaz ariko dira, aurtengo urtea ere kontuan izanik.

Gai garrantzitsuenetako bat tabernakoa da; izan ere, boluntario berriak behar dituzte lanerako. Azken puntua Gipuzkoako jubilatuen elkarteen berriak izango dira. Anoetan, beste lekuetan egiten dituzten gauzak edota antolakuntzez hitz egingo dute.

Bestalde, urteko kuotak kobratzen hasi dira, urteko 7 euroak, hain zuzen ere.

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun!

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharpenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetekin
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44
Santa Mari plaza, 1 behea

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

LIZARRIBAR
ONINAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA ▶

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte eskualdeetan Emakumearen Eguna dela eta

Hitzaldiak, afariak, elkarretaratzeak eta ikastaroak egingo dituzte, besteak beste; Tolosaldeko Bilgune Feministak agerrialdia egingo du hilaren 5ean Tolosan

ERREDAKZIOA

Datorren ostean, hilaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Eguna da, eta horren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horren inguruan. Hitzaldiak, elkarretaratzeak, afariak, ikastaroak eta abar egiteko aukera izango dute herritarrek. Jarraian antolatu diren ekitaldi gehienak zehazten dira, baina zehazti berezitak presenatza lanetan ari dira.

ADUNA

Elkarretaratzea. Hilaren 8an, Osoarteko irribiduietan *Beatsaunaren alde borrokan* lelopean elkarretaratzea deitu dute 20:00etan.

Afaria. Hilaren 10ean afaria antolatu dute Urriaza jatetxean, 21:00etan. Izena emateko Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean edo 943 693930 zenbakira deitu. Epea hilaren 6an bukatuko da.

ABALZISKETA

Bazkaria. Larrazten bazkaria antolatu dute hilaren 8an, 14:00etan. Izena emateko azken eguna bitar da, udalekoan.

ALBIZTUR

Afaria. Hilaren 9an afaria, 21:00etan. Herriko Etxea tabernan. Izena eman behar da hilaren 7a baino lehen udalekoan.

ALIZA

Afaria. Hilaren 10ean afaria antolatu dute Otsamendi jatetxean, 21:00etan. Izena emateko Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean edo 943 693930 zenbakira deitu. Epea hilaren 6an bukatuko da.

ALZO

Afaria. Hilaren 8an, 21:00etan, afaria Arcañadi jatetxean. Izena hilaren 6a baino lehen eman behar da, jatekoan bertan.

AMEZKETA

Merienda. Arkiztzen merienda egingo dute hilaren 8an, 17:00etatik aurrera elkarren. Aurretik 26 ure beteiko dira merienda egiten dutela. Detaldia irekia da.



Iaz ere Adunak elkarretarazte egin zen emakumeen eskubideen alde. ir12.

ANETA-IRURA

Tallera. Hilaren 7an, *Gure gorputzaren inguruan bat egiteko espazioa* tallera emango du Ainhoa Iturbide terapeutak. 15:00etatik 17:00etara. Anonetako Abraham Oiano kiruldegian. Doan izango da. Arnasketak, dinamika, jolasak, erlaxazioak... abiapuntu bakoitzaren goguzta eta barne inatearekin konektatu eta gorputza entzuten ikasiko. Izan emateko hilaren 6a arte irurako udalekoan edo Anetoako kirolegian.

BALIARRAIN

Afaria. Hilaren 10ean afaria antolatu dute Urbiola Iratze erretegiak. 21:00etan, trikilariek alaituta. Izena emateko hilaren 7a arte, erretegi bertan. Beñatortek 15 euro ordainduko dituzte eta herririk kanpoak 25 euro.

BERRORI

Afaria. Hilaren 9an afaria antolatu dute Udolak Iratze erretegiak. 21:00etan, trikilariek alaituta. Izena emateko hilaren 7a arte, erretegi bertan. Beñatortek 15 euro ordainduko dituzte eta herririk kanpoak 25 euro.

ELDUIAN

Hitzaldia. Jakobak Errekondok Loreak eta landareak hitzaldia emango du hilaren 8an. Kultur Etxean izango da eta 16:00etan hasiko da.

ASKARIA

Errekondoren hitzaldian ondoren, 17:00ak aldira asar merienda antolatu du Udalak.

IKAZTEGIA

Afaria. Hilaren 9an afaria antolatu dute Herrigintza elkarteak. 21:00etan. Toki Alai tabernan eman behar da izena hilaren 7a baino lehen.

LARRAUL

Afaria. Hilaren 9an afaria antolatu dute Goiz-Arget jatetxean, 21:00etan. Izena emateko Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean edo 943 693930 zenbakira deitu. Epea hilaren 6an bukatuko da.

egingo da Donostian, hilaren 4ean. Emakumeen kirola sustatzea du helburu proba horrek. Korrikalariek Donostiako Aizerdi Etxeren hasi eta txiki berean amatu behar dute bost kilometroko ibilbide lauan. Lastertzen baina parte har daitezke. Baita izde baten izenaren ere. Iaz Laskorain ikastolako ikasle eta irakasle batzuk animatu ziren eta oso ongi jarduaren. Aurtengorako ere animatuta daude, baina taldea zabaldu nahi dute. Dagoeneko ikasleen, ikasle-ohien, gurasoen eta irakaslearen artean. 30 neska elkartu dira. Animatu nahi duenak arratsonean jasokorinkastola.net helbidera mezu bat bidali jarri daitezke harremanetan.

VILLABONA

Hitzaldia. Katxalin elkartek, Bularreko eta Ginekolojia eta Minbiziazirik Eraginidako Emakumeen Gipuzkoako Elkarteak, hitzaldia emango du. Hitzaldia Lourdes Artzartzuri izango da. Donostiako Onkologiko Institutuko medikua. Bideo proiektu emango da. Hitzaldia Villabonako udaleko bilabontzeko artoetan (sarrea liburutegirik) izango da, hilaren 8ean, 17:00etan.

LEABURU

Afaria. Otxaz sagardotegiak afaria egingo dute hilaren 8an, 20:00etan, herriko emakumeek antolatuak.

LEITZA

Hitzaldia. Hilaren 7an, 19:00etan, Emakumeok gure eskubideak borrokatuz hitzaldia EHBPein eskutik Aurreran. Filma, Hilaren 8an, 16:30ean *Processa* filma ikusuteko aukera.

ELKARRETARAZEA

Hilaren 8an, 20:00etan, Emakumeok gure eskubideak borrokatuz lelopean, elkarretaratzea, herriko Kale Nagusian.

AFARIA

Hilaren 8an, 21:00etan emakumeen afari autogestioan. Ondoren, bertsoariak.

ORENDAN

Bazkaria. Martxoaren 9an, bazkaria, 13:00ak inguruan hasita, Eltxoa elkarteak.

ALOSA

Hitzaldia. Hilaren 8an, astelehena, agerrialdia egingo du Tolosaldeko Bilgune Feministak Kultur Etxean, 19:30etan. Ondorengo gaia: azaduko dituzte. Martxoak 8, emakumeen nazioarteko eguna, Bilgune leministaren irakurketak eta mobilizazioa eta emakumeen eskubide gaitzak.

LASKORAIN

Kastola Litaloan. Emakumeen Nazioarteko Egunaren proiektuak, aurretik ere Lizola emakumeen lasterketak

AINHOA ITURBE ▶ TERAPIUTA

«Gure buruari baimena eman behar diogu, maitasunetik gu geu gutiz ezagutzeko»

I. Garcia ▶ Ainhoa Iturbide (Iurra, 1972) emango du *Gure gorputzaren inguruan bat egiteko espazioa* izeneko tallera Anetoako kirolegian. Psikologaz gain, formazko burutu ditu sexu-italate eta gorputz-terapiak, eta arlo horietatik gurtietatik edaten du taldea prestatzeko. **Zer izan da harreraren?** Berez planteamendua denbora epe luzezko izaten da. Datorren asteak jalarren, bi orduraz, kontaktu bat izatea da helburua. Taldearen gorputzak

rekin topo egitea bilatzen da. Gorputza sentitzea erraza ematen du, baina ahozkoa daukagun zerbitzi da. Kanpotik ondo agantuta egotea bilatzen dugu eta ez dugi atentitate eta gorputz-terapiak, eta arlo horietatik gurtietatik edaten du taldea prestatzeko. **Zer izan da harreraren?** Berez planteamendua denbora epe luzezko izaten da. Datorren asteak jalarren, bi orduraz, kontaktu bat izatea da helburua. Taldearen gorputzak

kak, jolasak, erlaxazioak... egiten ditugu. Lan horrekin gure buruasarekin topo egitea bilatzen dugu eta kontratazea zeren zorrioz izan gaituzten gure gorputzarekin eta espirituarekin konektatzen. Gaur egun mailasuna esperimentatu gabe biziratzen da. Gure burua gutiz ezagutzeko baimena eman behar diogu gu geu gutiz ezagutzeko, gure burua maitasunetik healtze, gure burua ezintza eta naturarekin bat izate.



Taldea izan delako taldea?

Guztietzat da aproposa. Bai gaztea edo adinekoa izan, emakunea zela gizonetzat. Gure burua ezagutzeko denok behar dugun gauza bat da.

Taldea ezarri aherazte-ziagoa da?

Taldea aritzen izan gaituzten zuzenaren koadrilarik gabe eta pentatzen zuten emakumeak bakarri bat bezala ikusiko zutela. Nik esan nahi, bakarrak epoteak segurtasun txarra ematen ziola. Emakumeek pentata bezala ikusiko zutela. Baina izan gabe auzartzen zela tabernatzen (jan eta dantza egitea) animatzen. Gizon horiek, alera zen hurrengo aldian, hiru aldiz ligatu zuten, bere burua segurtasunaz ikusten zuelako. Sintesian, taldearen norberaren jokabidea, ahalmene, trebetasun eta emaitzak optimizatzen dira.

EDUARDO TRONCOSO ▶ COACH, GIZARTE PSIKOLOGOA ETA KRIMINOLOGOA

«Tailerrean norberaren jokabide, ahalmene, trebetasun eta emaitzak optimizatzen dira»

I. Garcia ▶ Ligarzen ikas ezazu muntzia emango du Eduardo Troncosok Zuzurkilen hiru egunetan zehar. Coach, gizarte-psykologoa eta kriminologoa bezala aurkezten du bere burua. Motibazioa eta emaitzetan aditua da eta horretan aritzen da profesionalki. denoia motibatzen dute, bere trebetasun naturalak indartu, funtzionatzen ez duena berritu eta bere helburuak lortzeko», dio. **Tailerre emateaz gain, bere kontzila ere badu?** Ligarzea orokorrean hobetu nahi dugun horren parte bat da. Hasi da, baina kirolean, beateak ikasketak, besteak lanean... hobetu egin nahi du. **Guzurko Erakusketak.** Martxoaren 9an, bazkaria, 13:00ak inguruan hasita, Eltxoa elkarteak.

na ez dago gustura. Guztiok nahi izaten ditugu behar fisiko, afektibo, sozialak asetzeko. Ikuspuntu horretatik eskuaintzen dit ligatzeko aholkularitza. **Motibazioa emateaz gain, bere kontzila ere badu?** Ligarzea orokorrean hobetu nahi dugun horren parte bat da. Hasi da, baina kirolean, beateak ikasketak, besteak lanean... hobetu egin nahi du. **Guzurko Erakusketak.** Martxoaren 9an, bazkaria, 13:00ak inguruan hasita, Eltxoa elkarteak.



emozionalak azalarazten ditugu taldearen. Zer esango dute, porrotari beldurra, lotsa, autostima berrua... dira otopo emozional horiek.

zon bat, kasu batean, ez zen ligatzea ausartzen. Bakarrik zegoen, koadrilarik gabe eta pentatzen zuten emakumeak bakarri bat bezala ikusiko zutela. Nik esan nahi, bakarrak epoteak segurtasun txarra ematen ziola. Emakumeek pentata bezala ikusiko zutela. Baina izan gabe auzartzen zela tabernatzen (jan eta dantza egitea) animatzen. Gizon horiek, alera zen hurrengo aldian, hiru aldiz ligatu zuten, bere burua segurtasunaz ikusten zuelako. Sintesian, taldearen norberaren jokabidea, ahalmene, trebetasun eta emaitzak optimizatzen dira. **Kirolean talde baten jokatzea, ahalmene, trebetasun eta emaitzak optimizatzen dira.** Baina ikusten duenean beateak ere arazo berak dituztela, orduan lasaitu hartzen dute Horik aurrera, taldearen parte-hartze aktiboa gertatzen da. ▶

hitza Harpidedunen txokoa

Zientzi arlokoak, soziari arlokoak, erretorikari arlokoak, soziari arlokoak

«Gizarte tradizionala ZIZURKILEAN (1615-1800)»

ARANZADI zientzi elkartearen eskutik **HITZako harpidedunen artean** liburua hauke eta 2007ko egutegia zozkatuko ditugul

2007

«TOLOSA aro modernoa» (XV-XVII)

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: **943 65 56 95**

zientzen parte hartzeko beharrezko da harpidedunen arlokoak, baina...

GAZTELU ▶ NATURA

Harrobian ingurumena berreskuratzeko lanak abian

Lan hauek burutuko dituen enpresa lehiaketa bidez aukeratu du Udalak

ASIER IMAZ

Aizkorregi harrobiaren zuloa lurrez bete eta ingurumena nahiz paisaia egokitzeko lanen eskumena Amenabar Eraikuntza S.L.-rentzat izan dela jakinarazi du Gazteluko Udalak. Lehiaketa bidez erabaki dute paisaia berreskuratzeko lanak egingo dituen enpresa zein izango zen. Horretarako Patxi Navas buru duen Udalak Endara Ingenieros Asociados S.L.-k idatzitako proiektu bat onartu zuen lehiaketan irizpide gisa erabiltzeko.

Sei hilabeteko epea izango dute lanekin amaitzeko, nahiz eta bi hilabete gehiago luzatzea ere zilegi izango diren. Harrobiko lanak dirauten bitartean, zerbitzu bereziak jarriko dira Gaztelurako bide sarea baldintza egokietan egon dadin. Helburu horretarako garbiketa makina jarriko dute, ka-

leak garbitzeko ibiltzen den horietakoa Udalaren esanetan. Eskuz ibiliko diren langile taldea ere egongo litzateke helburu berarekin.

145.000 euro Udalarentzat

Amenabar Eraikuntzak enpresak 145.000 euro emango dizkio Udalari. Honetaz gain, harrobiko lanen eta Endarak egoniko proiektuaren kostuak bere gain joango dira.

Harrobia betetzeko erabiliko dituzten materialaren informazioa Udalak izango du alde aurretik kontrol fitxen bitartez; horretaz gain ikuskapena egiteko aukerak ere izango ditu lanen jarraipena egiteko jarriko duen teknikari baten bitartez. Hau halaber, geologo bat izango dela jakinarazi du Gazteluko Udalak eta ekartzen dituzten materialen kontrolaz arduratuko da, besteak beste.



Aizkorregiko harrobian paisaia erabat aldatuko da lanen ondorioz. A.I.

Ingurumena eta paisaia berreskuratzeko proiektuarekin Aizkorregi harrobiaren inguruan izandako eztabaidei amaiera ematen zaie honela. Izan ere, aurreko legealdian Gazteluko Herritarrek (EAJ) harrobia martxan jartzeko

urratsak eman zituzten. Ondorengo hauteskundeetan ordea, oposizioan geratu ziren. Udal talde berriak (Batasuna - Ezker Batua - Independentiak), martxan jartzeari uko eta proiektu berri honekin ematen dio harrobiaren gatazkari irtenbidea.

BERASTEGI ▶

Podologo zerbitzua martxoaren 10ean

Podologo zerbitzua eskainiko dute martxoaren 10ean Berastegin. Deialdia irekia da eta ordua hartu nahi duenak Gaztainondo Jubilatuko elkartean izango du aukera. Nahiz izanez gero telefonoz ere eman daiteke izena. Horretarako elkartean ordu-tegien barnean deitu behar da: 16:30etik 19:30era. Telefono zenbakia honako hau da: 943 683264.

TOLOSA ▶

Bonberenean asteburuan kontzertuak

Bihar Izate Faltsua eta Apicultor taldeak izango dira 22:30etik aurrera Bonberenean. Etzi, berriz, Eko4 nafarrek euren disko berria aurkeztuko dute, hauekin Bide Bat taldea ariko da 22:30tatik aurrera.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun etxea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarain autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leizta): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ KULTURA



Erramun Martikorena Eneko Aritzaren Lagunen 'Sua' filmean

A. Imaz ▶ Asteburuan, *Sua* pelikulako eszena bat grabatzera, Bermeora joan ziren EAL elkarteak. Bertan dagoen *Aita Guria* baleontzian aritu ziren lanean, lagun berezi batekin: Erramun Martiko-

rena euskal abeslari ezagunarekin. Pelikulako jantziak jantzi eta baleontzian kantuan aritu zen elkartu ziren 60 bat lagunen aurrean. Ahazteko zaila den une horietako bat zalantzarik gabe. HITZA

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995. urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko lllantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 943 65 41 43.

ALOKAIRUA

Pisua. Lekuberrin 60 m2ko pisua alokatzen dut. Egongela, bainugela, sukaldia eta bi logelek. Telefono zenbakia: 679 20 14 60.

LANA

Harreragilea. Udaletxetarako

harreragilea behar dira. Interesatuak deitu ondorengo zenbakira: 943 44 48 66.

Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuak deitu ondorengo zenbakira: 943 44 48 66.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Eskualdeari buruzko zeure albisteak sartzeko aukera bikaina eskaintzen dizu gure webguneak *Zeuk idatzi* izena duen atalean. ▶

LEITZA ▶ GIZARTEA

Plazaola Partzuergo Turistikoa Navartur azokan izan da

Joan den asteburuan izan zen Iruñan, Baluarte Batzar Jauregian, eta 18.000 pertsona hurbildu dira bertara



Plazaola Partzuergo turistikoa jarritako stand-a. HITZA

NAIARA GARZIA

Plazaola Partzuergo Turistikoa Iruñako Baluarte Batzar Jauregian ospatu den Navarturaren, Nafarroako II. Nazioarteko Turismo Azokan, parte hartu du joan den asteburuan.

Ekimen honen bitartez eskualde hau ezagutzera eman nahi izan du Plazaolako Partzuergo Turistikoa eta, bide batez, bertako turismo zerbitzuen inguruko informazioa eman.

Yolanda De Carlosek, Plazaola Partzuergoko kudeatzaileak, azaldu duenez, «lehenengo urtean beste elkarte batzuekin joan ginen: Bertitz, Pirinioak... aurren, berriz, Astitzko bailara, Larraungoa, Lekunberriko Beigorri Abentura Parkea eta Lizasoko *Pitch & Puttarekin* joan gara. Eskualde bezala joanda gusturago gelditu gara».

Otsailaren 23, 24 eta 25an izan dira Baluarte Batzar Jauregian. «18.000 pertsona ibili dira irakurri dudanez. Guri lehenengo urtean baino jende gehiago ibili dela iruditu zaigu. Eguraldiak ere lagundu digu, igandean euria egin baitzuen. Honetaz gain, aurren egunero zozketa bat egin dugu eta ho-

rrek jendea ikaragarri animatu du».

Partzuergoak Lekunberri, Areso, Leitza, Larraun, Basaburua eta Iza-Gulina herriak ordezkatzeko ditu, eta bertako landetxeak, hotelak, jatetxeak, artisauak... «Jendeak gehienbat Plazaolako Naturbidea eta Mendukiloko leizeen inguruan galdetu digu».

Navartur azoka ospatzen den bigarren aldia da eta aurren, Nafarroatik ezezik, beste

hainbat lekutatik ere etorri dira. «Nafarroako stand gutxi egon dira. Aurren gonbidatuak Girona eta Frantzia izan dira. Israel eta horrelako herrialdeek ere stand-a izan dute, baita enpresa ezberdinek ere. Leitzatik, adibidez, Talotegia enpresakoak joan dira».

Navartur azoka amaitu da baina martxoaren 16, 17 eta 18an Plazaola Partzuergo Turistikoa Donostian ospatuko den Sevatur azokan izanen da.

Talotegia ere Baluartan

Leitzako Talotegia enpresa ere Baluarte Batzar Jauregian ospatutako azokan izan da. Mikel Lizarragak, enpresa onetako bazkideetako batek, azaldu duen bezala, «ez da hainbeste jende ibili, baina proportzioan ongi saldu dugu. Jendeari gehienbat gustatzen zaiona zera da, taloa tradizio bat dela, osasungarria eta 5 minututan eginga dagoela». Hala, Leitzako enpresa honek bertara hurbildu zirenen jakinmina piztu zuen. «Iruñan jende askok oraindik ez daki taloa zer den».



Mikel Lizarraga. N. G.

LEITZA ▶

ETB 1eko 'Egin Kantu' saioa gaur, plazan

Nerea Aliasek aurkeztuta gaur arratsaldean *Egin Kantu* saioaren grabaketa egingo dute herriko plazan. Horretarako karpa moduko bat jarri zuten atzo, euria egiten badu bertara hurbiltzen diren umeak eta gazteak busti ez daitezke. Saioa 17:00etan hasiko da eta lau ordutako iraupena izanen du, 21:00etan amaituko baita.

LEITZA ▶

Zuhaitz zaharren inguruko erakusketa

Zuhaitz Zaharrak izeneko erakusketa jarri dute herriko udaletxean eta bertan, hauen inguruko hainbat argazki daude ikusgai. Zuhaitz zaharren lagunak elkarteak antolatuta du erakusketa, eta martxoaren 16a arte egongo da herrian. Elkarte honek erakusketaren inguruko webgune bat ere badu: www.arbolesviejos.com.

LEITZA ▶

Jose Sagastibeltzari omenaldia, etzi

Jose Sagastibeltza Villabonari omenaldia etzi egingo diote. Hasiere batean urtarrilaren 27an egin behar zioten, baina elurra-rengatik atzeratzea erabaki zuten. Jose Sagastibeltzak 27 urte egin ditu udal langile bezala herriko konponketak eginez eta mendia zainduz. Omenaldia 12:00etan hasiko da, aurrekuarekin. Ondoren, 12:15ean herri kirolak izanen dira plazan (eguraldi txarra egiten badu pilotalekuan bilduko dira). 13:00etan bertolariak izanen dira, eta gero, opariak banatuko dituzte. Bazkaria Musun-Zar jatetxean izanen da, 14:00etan.

TXOTX

Arratzain

Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 **Usurbil**

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 **Astigarraga**

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 **Astigarraga**

Iparragirre

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 **Hernani**

Urbitate

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 **Ataun**

Gurutzeta

Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 **Astigarraga**

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 **Astigarraga**

Lizeaga

Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 **Astigarraga**

Elutxeta

Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 **Urnieta**

Rezola

Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 **Astigarraga**

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 **Hernani**

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Sukaldaritzaren ikastaroa antolatuta du Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak. 20 orduko iraupena du eta martxoaren 3an hasiko da. Larunbate-tan izango da, 10:00etatik 12:00etara, Txulobi elkartearen. Izen-ematea, Mankomunitateko bulegoetan edo 943 693930 telefono zenbakian.

Alegia. Martxoaren 10ean Zazpi Astoren Gainean bertso eskolaren antolatutako bertso afaria izango da Txintxarri jatekian Andoni Egaña eta Amets Arzallusekin, Kultur Korrikaren barnean. Txartelak salgai daude 25 eurotan.

Alegia. Astelehenero helduentzako klaseak hasiko dira. Helburua lehen ikasitako gauzak gogoratzea eta bi ordu lagunarte on batean igarotzea da. Izen-ematea Udalebako gizarte zerbitzuetan izango da eta HHlko telefono zenbakian: 943 67 26 60.

Anoeta. Anoetako jaietan, ekainean, herriko aizkolariek Hernialde, Asteasu, Alkiza eta Iruako aizkolaria koadrilei apustua egiteko desafioa bota diete, bi kanaerdiko eta bost oinbiko enborrekin, banaka edo binaka. Izen-ematea, 943 651497 telefono zenbakian egin dezekete interesatuek.

Ibarra. Bizi nahi jubilatuta elkarrekin irteera antolatuta du Bilbora marboaren 10erako: Montenegro jatekian bazkaria, zozketa eta dantzaldia (27 euro, ez bazkideek 29). Izen-ematea zabalik.

Tolosa. Orixen 18:30ean, DBHko 1., 2. eta 3. mailako gurasoek Hilario Garrudo psikologoarekin hitzaldia izango dute. Izenburua *Gizartearen nerabeek topatzen dituzteen arrisku-egoerak eta gurasoek eman beharreko laguntza.*

Tolosa. Samaniego ikastetxean Haur Hezkuntzako zentro berria, bioklimatikoa eta ekologikoa, erakusteko bisitaldi gidatuak izango dira.



Bihar, 'El vendedor de tiempo' antzezlan

TOLOSA ▶ Leidorrek bihar ekingo dio martxoko egitarauari. Garbi Losada zuzendariaren *El vendedor de tiempo* antzerki musikala izango da ikusgai. Fernando Trias de Bes idazlearen eleberrira oinarritzen da lana, eta Koldo Losada, Lierni

Fresnedo eta Ainhua Aierbe aktore euskaldunak dira protagonistak, besteak beste. Etzi, larunbaterekin, ere izango da zer ikusia. *Las mil i una nits* dantza lana aurkeztuko du Kataluniako taldeak, haurrentzat zuzenduta. HITZA

da. Liburuak, arropa, jostailuak, diskoak, e.a. eramane daitezke aste honetan Amaroarko Auzo Elkartera (jatekian gainean) 18:00etatik 20:00etara.

Tolosa. Udal Haur Eskolan aurrematratura irekita dago marboaren 2 arte Udal Euskara Batzordean. Informazioa 943 697453 telefonoan.

Tolosa. Marboan, apirila eta maiatzerako Gazteria Sailaren ikastaro berriak: txalaparta, gizarte trebetasunak, baxkata, salsa, merengue, etabar ikastaroa, jendaurrean hitz egitea eta gorputz espresioa. Izen-ematea, Kultur Etxean egin daiteke (943 670383 edo gazteria@tolosakoudala.net).

Tolosa. Oargi mendi elkarrekin Gavarniera (Frantziako Pirineoak) irteera antolatuta du marboaren 2, 3 eta 4an, Granje de Holle aterpean, Vignemale eta Pimene mendiak igoz. Informazioa 637 830380 telefono zenbakian.

Tolosa. Oargi mendi elkarrekin eskalada ikastaroa antolatuta du marboaren 12, 14 eta 15ean 18:30etik 20:30era Oargiko rokodromoan eta 17an Eginoko (Araba) eskalada eskolan egun osoz. Informazioa, 637 830380 telefonoan.

Villabona. Luz Ardidenara (Frantzia) eski irteera antolatuta dute marboaren 17rako 1987 eta 1994 bitartean jaiotakoentzat. Izen-ematea, Villabonako Gazte Informazio bulegoan (943 694458), Zizurkilgo udal bulegoetan (943 692495) edo Villabonko hezitzaileei deituz (665 720525 zenbakian).

etxean. Izen-ematea Aurreran.
Zizurkil. Marboaren 10ean emakumeen irteera izango da Arizkuneko Santxotena parke museora eta ondoren Elizondan bazkaria eta musika izango dira. Izen-ematea, marboaren 2a baino lehen Aurrerako udal bulegoetan (28 euro).

ERAKUSKETAK

Alegia. Alegiko jubilatuen tabernan Joseba Mercaderren argazkiak, marboaren 11ra arte.

Tolosa. *Elpuentea* pinturak eta eskulturak marboaren 3ra arte daude ikusgai, ostiralarekin, Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era, jai egun eta astelehenera izan ezik.

ZINEMA

Tolosa. Im Kwon-Taek zuzendariaren *Ebrío de mujeres y pintura* filma emango dute zine-forumean, Leidor zinemaren, 19:15ean eta 21:45ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Iruztun. Gastearna, M. Amaia kalea, 4. 112.
Ibarra. Iruztiro, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN errepasoak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Jone Saizar Ugarte (Tolosa). Muxu handi bat aiton-amona guztien partetik.



URTE ASKOAN
 Mari Angeles Barrio. Zorionak amona! Julen eta Irueneren partetik muxu potolo bat.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa